

PARAMETERS IN THE GRAMMAR OF BASQUE

Jon Ortiz de Urbina

Dordrecht, Foris (Studies in Generative Grammar, 33),
1989, 278 orr.

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 39. Tomo XXXVI. N.º 2 (1991), p. 395-404
ISSN 0212-7016
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

Sintaxiaz hitz egin behar dugunean, ezinbestekoa da teoria sortzaileaz mintzatzea, Chomsky hizkuntzalari amerikarrak 1957an *Syntactic Structures* liburutxo hura argitara eman zuenetik garatu den teoriari, alegia. Harez gero, ikerketa franko egin izan da mundu osoan zehar hizkuntza askori buruz eta, hizkuntzari buruzko hipotesiak aldatu eta birformulatu izan diren arren, ez dut uste oso oker nabilen hango funtsezko ideiak oinarrian ezer gutxi aldatu direla baldin badiot. Egun, baten batek hau gogoko izango ez duen arren, aski nabarmen gertatzen da sintaxi mailan teoria sortzailea dela teoriarik garatuena eta fruiturik gehien eman duena. Ez hori bakarrik; hizkuntzalarien artean kalapita eta eztabaida ugari baldin bada ere, sortzaile izan nahi ez duten teoriak gramatika sortzailearen inguruan definitzen dira, honen eskasia edo zenbait hipotesiren ahulezia aldarrikatuz. Horrenbestez, ezinbesteko erreferentzia puntua dugu, sintaxi arazoetan segurik, generatibismoa, izen honekin ere ezaguna baita teoria hau.

Egia da teoria hauek frogatu edo faltsatu nahi izan direnean hizkuntzetan zehar, hizkuntza hauen alde zurretiko deskripzio eta datu bilketa zehatzak genituela: hau honela esaten du jendeak, beste hura ez dagokio hizkuntza honi, e.a. Hitz batean, normalean eskura genituen hizkuntza hauetako gramatika deskribatzaile “neutroak”, bestelako azterketa sakonagoak egiten hasi aurretik. Honekin batera, aipatu behar dugu gramatikalarari sortzailea berak bere hizkuntzari buruz duen isileko ezagutzan ere oinarritzen dela, perpaus hau gramatikaltzat edo onerizgarritzat (nahiz kontzeptu hauek ez diren gauza bera) joz edo baztertuz.

Eskura dugun liburu hau da, oraingoz behintzat, aipatzen ari garen teoria honen barnean euskal sintaxiazegin den lanikosoen eta landuena, aurretikegindako beste lan batzukegileak gogoan dituen arren. Euskal gramatikaz hitz egiten dugunean batek izan dezakeen inpresioa da ia dena esana dagoela. Hori ez da egia, ez da gauzarik apalenetan ere. Hor ditugu, esaterako, Euskaltzaindia argitaratzen ari den gramatika deskriptiboaren liburukiak (*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*), zenbat nekeren fruitua diren ohartzeko. Hori deskripzio mailan eta oraingoz juntadura eta menderakuntza aztertu gabe daudelarik! Hortik, lehenbiziko pausu hori ematetik, hizkuntza honen sakonean dauden legeak zehaztera pasatu nahi dugunean, edo gure hizkuntzari buruz egin daitezkeen azterketak kanpoan egiten direnen pare jarri nahi baditugu, ezer gutxi aurkituko dugu, salbuespenak salbuespen, jakina.

Ororen gainean Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan* (1980) aipatu beharra da, bera ere teoria sortzaileaz baliatu baitzen euskara aztertzeko orduan, nahiz eredu zaharragoa erabili. Badira beste lan batzuk ere, Ortiz de Urbinak bere tesia burutzen ari zen urteetan —liburu hau tesi hura baita, azken batean— edo urte batzuk lehenxoago idatziak zirenak eta berak ere, seguraski, ongi ezagutzen zituenak: Eguzkitzaren tesia bera (*Topics in the Syntax of Basque and Romance*), Levin-en tesia (*On the Nature of Ergativity*), Rebuschi-ren hainbat lan, Salabururen “La teoría del ligamiento en la lengua vasca”, e.a. Onartu behar da, hala ere, Chomsky-k

1981ean bere *Lectures on Government and Binding* plazaratu zuenetik, parametroen eredia segituz egin den lan osoena, esan bezala, Jon Ortiz de Urbinaren hau dugula.

Ez dugu hemen azalduko zein diren eredu honen ezaugarri nagusiak. Esan dezagun, hori bai, berridazketa arauak eta arau bihurtzaileak ia ia desagerturik daudela, hizkuntzetan baldintza unibertsal gutxi batzuk daudela onartzen baitute gaur egun hizkuntzalariek. Baldintza unibertsal hauek (sintagma guztiek eredu bat bakarria segituko lukete hizkuntzetan, berridazketa arau mutzo handi horren ordez bata bakarria, eta hori unibertsala, jarriz) parametro batzuen arabera definituko genituzke hizkuntzetan (esate baterako, berridazketa arau orokor hori unibertsala izanik ere, hizkuntza batzuetan gunea ezkerrean egonen litzateke eta eskuintean, berriz beste batzuetan), parametroa delarik azken batean baldintza unibertsal horrek hizkuntza bakoitzean hartzen duen balioa. Horra nondik hartzen duen Ortiz de Urbinak izenburua: liburuaren edukia ikusiz, “Euskal Parametroen Bideetan” edo, izendatu beharko genuke.

Esan dugun moduan, euskal gramatikaren ikerketan ez da lan gehiegi agertzen sintaxiari buruz, gehiengoak morfologia edo fonetika mailakoak baitira. S. Altube da, historian zehar, salbuespen handia, bere *Erderismos* hura burutu zuenean helburu garbizale batekin idatzi zuen arren. Kontuan hartu beharrak dira, ezinbestean, R. de Rijk hizkuntzalari holandar argiaren lanak ere. Zernahi gisaz, geroxeago aipatuko dugun moduan, Altubek, batetik, eta de Rijk-ek, bestetik, planteiatu zituzten hainbat arazori erantzuna ematen saiatzen da Ortiz de Urbina. Gauzak aldatzen ari dira azken urteotan eta bertoko hizkuntzalariorik ere ez dugu kanpoan egi-ten ari diren lanetatik bazterturik geratu nahi. Horregatik jarri dugu azkenean bibliografia txiki bat. Bibliografia horretan ez dira hemen aipatzen ditugun liburuak zerrendatzen: teoria honen inguruan, eta euskarari buruz, egin diren lanen berri eman nahi dugu hor, besterik gabe.

Parameters in the Grammar of Basque liburua (PGB, hemendik aurrera) lau kapitulu naguitan banatzen da, guztietan ere euskararen oinarritzko arazoak ikertzen direlarik: ergatibitate; hitzen ordena eta konfigurazionalitatea; komunztadura eta kasu ezarketa, eta galdegaia.

Oinarritzko arazoak dira ez bakarrik euskararen ikerketan, baizik teoria orokorraren formulazioan ere. Horrela, esate baterako, B. Levin ibilia zen, besteak beste, euskararen ergatibitatearen aztertzen. Haren ustez, euskara ixturaz bakarrik da ergatiboa, “nor” kasua hartzen duten izen sintagma guztiak pazienteak baitira paper tematikoei dagokienez. Orduan, “nork” izen sintagmak, besterik gabe, agenteak liriateke. Levin-ek ateratzen zuen ondorioa zen “nor” guztiak objektu direla, inoiz ere ez subjektu, hau aditz inakusatiboekin ere betetzen zelarik: “Jon datar” bezalako perpausak aztertzerakoan proposatu izan da sakonean “Jon” objektua dela eta A-egituran, azaleko egitura alegia, subjektu bihurtzen dela lekuz mugituz. Levenen usteetan, euskaraz ez litzateke halakorik gertatuko eta jatorritzko lekuan gertatuko litzateke sintagma hori. Bestela esan, perpaus hauekzuk lukete subjekturik izango. Horregatik eman ditza-kegu euskaraz partitiboan aditz iragangaitzen “subjektuak” eta aditz iragankorren objektuak (“ez da gizonik etorri”, “ez dugu gizonik ikusi”), eta ez aditz iragankorren subjektuak (“*ez du gizonik hau esan”), hain zuzen ere, lehenbiziko biek, baina ez azkeneko honek, klase natural bat osatzen dutelako. Ikusten denez, Levinek buelta ematen die oso osoan pasibisten aldeko teoriei, hauentzat, jakina baita, “nor” sintagma guztiak subjektu baitira eta ergatiboak, berriz, agente paziente deitu diren horietakoak.

Ortiz de Urbinak Levenen planteiamendu interesgarria jasotzen du (“Levin’s intuition about Basque verb structure and case-assignment seems to me to be basically correct and Worth pursuing”, dio 56. orrialdean) eta zenbait puntutan kritikatu, batez ere kasu ezarketa eta

komuntadura kontuetan; PRO kategoria isilaz ere, ez dator bat Levinen iritziekin, batez ere perpaus iragangaitz mugagabeen kasuan (ikus, esaterako, 66. orr.).

Bigarren kapituluan hitz ordena eta konfigurazionalitatea aztertzen ditu. Horretarako, sintagmen egitura zein izan daitekeen, nolako mugak dituzten, aditzaren isladapenak, e. a., ikusi ondoren, azken urteotan euskal hizkuntzalarien artean eztabaida bizia sortu duen galderari erantzun nahi dio: ba al dugu euskaraz aditz sintagmarik?

Altubek ere ukitzen zuen gai hau bere garaian, baina zeharka: galdegaia aditzaren aurrean jartzen ornen dugu euskaraz, biek ezin hautsizko unitatea osatuz, horixe zioen. Baiezta-pen horrek, hala ere, badu bere muina: perpausak barneko egiturarik baldin badu, hau da, aditzak eta bere izen sintagmak, esaterako, beste unitate bat osatzen baldin badute, non jartzen dugu galdegaia egitura horretan? Honetaz ez zioen deusik Altubek. Urteak beranduago, R. de Rijk-ek pentsatzen zuen ("Topic Fronting, Focus Positioning and the Nature of Verb Phrase in Basque", 1978) euskaraz ez zegoela, sakonean, aditz sintagmarik, baina izen sintagma bat, galdegai bihurturik, aditzaren ondoan jartzen dugunean, orduan sortzen duela izen sintagma honek aditzarekin batera aditz sintagma azaleko egitura. Hungarieraz Horvath-ek egin lanean (*Aspects of Hungarian Syntax and the Theory of Grammar*, 1981) posizio estra-argumental bat aldarrikatzen zuen aditzaren aurrean, euskaraz dugun galdegaiaren antzeko zerbait esplikatu nahirik. Analisi bera erabili zuen Eguzkitzak ere bere tesian, euskarari ezarritik oraingoan. Lehenbiziko lanetan Ortiz de Urbinak ez zuen aditz sintagmaren beharrik ikusten, baina PGMn, gurutzaketa ahula eta bortitzari (weak and strong cross-over) buruzko argumen-tuak erabiliz, uztardura aztertuz, koordinazioa kontuan hartuz, e. a., euskal perpausaren ere aditz sintagmaren beharra aurkitzen du, eta hori proposatu, zenbait arazoren berri emateko-tan. Horretan bat dator gure artean onartu izan dugunarenarekin.

Hirugarren kapituluak komuntadura eta kasu ezarketa aztertzen du. Gauza jakina da euskarak oso aditz laguntzaile aberatsa erakusten duela morfologia aldetik, komuntadura subjektuarekin ez ezik, objektu zuzena eta zeharkakoarekin ere egiten baitu. Hizkuntza teoriaran gaur egun hau da agian eztabaidarik handienak sortzen dituen arazoa: zein da benetan laguntzailearen barne egitura? PGM-n proposatzen da halako mekanismo berezi bat honen berri emateko, aditza eta argumentu isilen arteko erlazioak zein izan daitezkeen xeheki aztertzen delarik.

Laugarren kapitulua da, nere ustez, landuena, aberatsena eta berriena. Interesgarriena ere, horrexegatik. Bertan aztertzen dira NZ hitzen (nor, zer, zein, e.a., eta galdegai bihurturiko izen sintagmen, orohar) mugimenduak, besteak beste. Horretarako, Chomksyk Barriers-en garaturiko ideia bat biltzen du Ortiz de Urbinaketa euskararen hainbat fenomeno harkematen duen argipean ikusi. Ikus dezagun hau astiroxeago:

(1) Mirenek Jon ikusi du

Perpaus hori izan daiteke neutroa (galdegairik gabea), nahiz markatua ("Jon" izen sintagma legoke galdegaiaren tokian). Konpara dezagun beste honekin:

(2) Jon ikusi du Mirenek

Argi dago perpaus honetan badugula galdegaia, ordena hori ez baita euskal perpausaren ordena neutroa (argumentuetarako ikus daitezke R. de Rijken "Is Basque an SOV language?" eta Osa-ren *Euskararen hitzordena zeregin komunikatiboaren arabera* izeneko tesia). Non da "Jon" izen sintagma markatu hori perpausaren egitura? Bestelako hizkuntzak aztertze-ko or-

duan onartzen zen sintagma fokodunak perpausaren kanpokoaldean dagoen KONP lekura mugitzen zirela:

(3) What [did John see t]

Hor dago “What” izen sintagma aurreko aldera joana, perpausetik kanpo, jatorrizko lekuan “t” marka bat uzten duela. Baina euskaraz, zer? Hori eginez gero, egitura hau genuke:

(4) Zer [t ikusi du Mirenek]

Baina argi dago (2) eta (4) perpausen egitura ez dela bera. Besteak beste, (2) perpausuan, subjektua azkeneko tokian ageri zaigu. KONP delako horretan gunea bat bakarrik baldin bada, arazoak azaltzea zail samarra da. Chomskyren analisisia onartuz, ordea, Ortiz de Urbinak zuzen proposatzen du KONP hori oso aberatsa dela eta gainerako sintagma guztien egitura bera duela: Espezifikatzaile bat, sintagmak pausatzeko modukoa eta gunea bera, X mailako buruak onartuko dituena. Hori horrela, mugimendua bi pausutan proposatzen du: sintagma aurreratu lehenik eta beste hainbat hizkuntzatan aztertu izan den “aditza bigarren” izeneko fenomenoari esker, aditza bera ere KONP-era, gero:

(5) Jon ikusi du [Mirenek t v]

Hor, “t” da “Jon” izen sintagmaren aztarna eta “v”, berriz, aditzarena, subjektua bere tokian dagoelarik mugitu gabe geratu den osagai bakarra. Ortiz de Urbinak proposatzen duen analisisia, nahiz eta puntu ahulak dituen, guztiz berria eta ikaragarri polita da. Jakina, ez da hau kapitulu horretan aztertzen duen gauza bakarra, galdegaiaren inguruan hainbat eta hainbat ideia berri ematen digulako (ezezko perpausena benetan adierazgarria da).

Liburu hau aurrerapausu handia da euskal hizkuntzalaritzan eta aurrerantzean egingo diren lanek kontuan hartu beharko dute ezinbestean zerbait serio esatekotan. Horrexegatik argitaratu du Foris-ek, egun prestigio handienetako argitaletxe honek. Gainera, Ortiz de Urbina bereziki argia da idazteko orduan, pausuk ongi lotuz eta gauzak pedagogia handiarekin erakutsiz. Liburuak baditu, izan ere, kritigarri gerta daitezkeen zenbait gauza, hemen azpimarratuko ez ditudanak, Rebuschik ASJU-n argitara eman duen erreseinan ongi aski seinlatu baititu. Hala ere, anekdota gisan aipatuko dut bat izenbuiuari dagokiona: ongi ikusten da argitaletxeok marketing kontuaz aldatu diotela izena *Parameters...* jarri azken orduan, barnekoaldeko orrialde guztietan *Some Parameters...* irakur baitaiteke, Illinois-eko unibertsitatean aurkeztu jatorrizko tesian bezala.

Pello Salaburu

BIBLIOGRAFIA (euskal sintaxiaz)

- ALTUBE, S. (1929) *Erderimos*, Bermeo.
- ANDERSON, S. (1976) "On the Notion of Subject in Ergative Languages", Li, ed., 1-26.
- AZKARATE eta beste (1982a) "Word Order and Wh-movement in Basque", *Proceedings of the North Eastern Linguistic Society* 12.
- AZKARATE eta beste (1982b) "Governed Anaphors in Basque" *Proceedings of the North Eastern Linguistic Society* 12.
- BOSSONG, G. (1984) "Ergativity in Basque", *Linguistics* 22: 341-392.
- EGUZKITZA, A. (1986) *Topics on the Syntax of Basque and Romance*. UCLA: Doktorego tesia. Argitaratu gabe.
- GAVEL, H. (1930) "Observations sur la passivité Basque", *RIEB XXI*, p.p. 1-14
- EGUZKITZA A. eta J. ORTIZ DE URBINA (1987) "Konfigurazioak euskaraz", Salaburu (ed.) 1987.
- GOENAGA, P. (1991) *Gramatika bideetan*, Donostia: Erein.
- GOENAGA, P. (1984) *Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa*. Doktorego tesia, argitaratu gabe. UPV/EHU.
- GOENAGA, P. (ed.) (1986) *Euskal sintaxiaren zenbait arazo*, UPV/EHU: Bilbo.
- GOENAGA, P. (1989) "Izen sintagmaren egituraz", argitaratu gabe.
- HALE, K., (1985) "On nonconfigurational structures", *ASJU XX-2*.
- HEATH, J. (1972) "Genitivization in Complement Clauses", *ASJU VI*.
- HEATH, J. (1974) "Some Related Transformations in Basque", *Papers from the Regional Meeting of the Chicago Linguistics Society* 10: 248-258.
- HUALDE J.I. (1986a) "Case-Assignment in Basque", *Journal of the Atlantic Provinces Linguistic Assotiation* 8, 44-71.
- HUALDE, J.I. (1986b) "Case-Assignment in Basque", *Journal of the Atlantic Provinces Linguistic Assotiation* 8, 44-71.
- JACOBSEN, W.H. (1985) "The analog of the Passive Transformation in ergative-type languages", Lacombe, G. (1952) "Langue basque", Meillet and M. Cohen, eds., *Las Langues du Monde*, CNRS, Paris, 255-270.
- LAFITTE, P. (1931) "Pour ou centre la passivité du verbe basque". *Gure Herria XI*, p.p. 263-271.
- LAFON, R. (1954) "Comportement syntactique, structure et diathese du verbe basque", *Bulletin de la Societé de Linguistique de Paris*, Tome cinquantième, Fascicule 1. Paris.
- LAFON, R. (1960) "L'expression de l'auteur de l'action en basque", *Bulletin de la Societé de Linguistique de Paris*, 55-1, 186-221.
- LAKA, I. (1986) "Azpikotasunaren baldintzaz: muga adabegiak euskaraz", P. Goenaga (ed.).
- LAKA, I. (1988) "Sentence Negation in Basque" MIT: argitaratu gabea
- LAKA, I. (1989a) "Buru mugimendua eta bere propietateak", Salaburu Ed. (1989).

- LAKA, I. (1989b) "Ezeztapena euskaraz", Salaburu Ed. (198913).
- LAKA I. (1989c) "Configurational heads in inflectional morphology: the structure of the inflected forms in Basque" *ASJU*. Diputacion Foral de Gipuzkoa.
- LAKA, I. (1989d) "On the Tense-C-Command Condition". MIT: argitara gabea.
- LAKA, I. (1990) *Negation in Syntax: On the Nature of Functional Categories and Projections*. MIT: Argitara gabeko tesia.
- LEVIN, B. (1983) *On the Nature of Ergativity*, MIT: Doktorego tesia.
- LEVIN, B. (1987) "The Basque Verbal Inventory and Configurationality", Maracz and Muysken, eds., *Configurationality*, Foris: Dordrecht.
- MARTIN-CALLEJO, Esmeralda M. (1984) *Some aspects of Basque morphology and syntax* Tucson: University of Arizona. Doktorego tesia. Argitaratua: *Evidence from Basque for a new Theory of Grammar*. N. York, Garland (1988).
- MARTINES, A. (1958) "La construction ergative", *Journal de Psychologie Normale eta Pathologique*, jul.-sept.
- MARTINET, A. (1962) "Le sujet comme fonction linguistique et l'analyse syntaxique du basque", *Bulletin de la Société Linguistique de Paris* 57: 73-82.
- MITXELENA, K. (1972) *Zenbait hitzaldi*, Gero: Bilbo.
- MITXELENA, K. (1981) "Galdegai eta mintzagaia euskaraz", *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Deustuko Unibertsitatea: Bilbo.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1983) "Empty Categories and Focus in Basque", *Studies in the Linguistic Sciences*, Volume 13, n.º 1, Spring.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1987) "Operator Movement and Verb Second Phenomena in Basque" *ASJU* XXI-2.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1988a), "Kasu ezarketa eta ez-ergatibitatea euskaraz", Salaburu (ed.) 1988.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1988b), "Perpau ez-tenporalizatuak", Salaburu (Ed.) 1988.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1988c), "NZ-aren mugimendua", Salaburu (Ed) 1988.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1989a) *Parameters in the Grammar of Basque*. Foris: Dordrecht.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1989b) "Dislocaciones verbales en estructuras de polaridad", *ASJU* XXIII.
- ORTIZ DE URBINA, J. (1989c) "Konfigurazionalitateaz", *ASJU* XXIII-I.
- OYHARÇABAL, B. (1985) *Les relatives en basque*. Université de Paris 7, Collection ERA 642: Paris.
- OYHARÇABAL, B. (1988) "Operatzaile isila euskarazko perpau erlatiboetan", *ASJU* XXII-1.
- OYHARÇABAL, B. (1990) "Structural and Inherent Case-marking: Ergaccusativity in Basque" (MIT, argitaratu gabe).
- REBUSCHI, G. (1978) "Cas et fonction sujet en basque", *Verbum: Revue de linguistique publiée par l'Université de Nancy II* 1: 69-98.
- REBUSCHI, G. (1982) *Structure de Yenoncé en Basque* SELAF, Paris.

- REBUSCHI, G. (1984a) "Positions, configurations eta classes syntaxiques. Aspects de la construction de la phrase basque" (Euskaltzaindiak Iruñean antolatutako Batzarrean aurkeztua).
- REBUSCHI, G. (1984b) "On the Non-configurationality of Basque and Some Related Phenomena" (eskuizkribua).
- REBUSCHI, G. (1984c) "Theorie du liage et langues non-configuracionales: quelques données du Basque Navarro-Labourdin" (eskuizkribua).
- REBUSCHI, G. (1985) "Pour une représentation syntaxique duale: Structure syntagmatique et structure lexicale en Basque", *ASJU XX-3*.
- REBUSCHI, G. (1989a) "Binding at LF vs. Obligatory (Counter) coindexation at S-s: a Case Study", prentsan.
- REBUSCHI, G. (1989b) "Is there a VP in Basque?", L. Maracz and P. Muysken, eds., *Configurationality. The Typology of Asymmetries*, Foris: Dordrecht.
- RIJK, R. de (1969a) "Is Basque an SOV language?" *FLV*.
- RIJK, R. de (1969b) "Vowel interaction in Biscayan Basque", *FLV*.
- RIJK, R. de (1972a) *Studies in Basque Syntax: Relative Clauses*, MIT: Doktorego tesia.
- RIJK, R. de (1972b) "Relative Clauses in Basque. A guided tour", Parenteau, Levy & Phares (ed.): *The Chicago Wicahunt: Papers from the Relative Clauses Festival*. Chicago Linguistics Society.
- RIJK, R. de (1972c) "Partitive Assignment in Basque", *ASJU 1972*.
- RIJK, R. de (1978) "Topic Fronting, Focus Positioning and the Nature of the Verb Phrase in Basque", Jansen (ed.) *Studies in Fronting*, Lisse.
- RIJK, R. de (1987) "Euskara eta hizkuntz tipologia", Salaburu (ed.) 1987.
- ROTAETXE, K. (1978b) "Lingüística lógica: la construcción ergativa vasca", *Revista Española de Lingüística 8*: 431-445.
- ROTAETXE, K. (1980) "Ergatiboaren sujetotasunaz", *Euskera XXV* : 417-424.
- SAEZ, L. (1989) "Borrado/Forma Lógica: Comparativas con Complemento Nulo en español y euskara", *ASJU XXIII-3*
- SALABURU, P. (1984a) *Hizkuntzaren soinu-egitura*. Euskal Herriko Unibertsitatea: Bilbo.
- SALABURU, P. (1984b) "Gobernu eta Uztardura teoriari buruzko zenbait ohar" (eskuizkribua).
- SALABURU, P. (1985a) "Uztardura", *Symbolae L. Mitxelena.... UPV/EHU*: Bilbo.
- SALABURU, P. (1985b) "Hizkuntza eta linguistika" *FLV*.
- SALABURU, P. (1985c) "La lingüística de Mario Bunge", *ASJU XIX-2*.
- SALABURU, P. (1985d) "Uztarduraren teoria" in P. Goenaga (ed.).
- SALABURU, P. (1986) "La teoría del Ligamiento en la Lengua Vasca", *ASJU XX-2*.
- SALABURU, P. (1987a) "Euskal perpausaren egitura", Salaburu (ed.).
- SALABURU, P. (1987b) "La lingua dei Baschi", *L'Umana Aventura*. Jaka Book: Milano.
- SALABURU, P. (1988a) "Kategoria gauzatuak eta kategoria isilak", Salaburu (ed.).

- SALABURU, P. (198813) "IS-ren mugimendua", Salaburu (ed.).
- SALABURU, P. (ed.) (1987) *Euskal morfosintaxia eta fonologia: eztabaida gaiak*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- SALABURU, P. (ed.) (1988) *Sintaxi-Arazoak*, EHU: Bilbo.
- SALABURU, P. (1989a) "Arauk eta baldintzak (I)", Salaburu (ed.).
- SALABURU, P. (198913) "Arauk eta baldintzak (II)" Salaburu (ed.).
- SALABURU, P. (1989c) "El movimiento de las frases-Qu y el foco en vasco", ASJU 1989 eta Actas del Primer Congreso de Lingüistas de España y México.
- SALABURU, P. (1989d) "Euskal Perpauza: zenbait ohar sintaxi eta mintzagai egiturez", prentsan. Mitxelenari omenaldia (Lakarra ed.).
- SALABURU, P. (1989e) "Euskararen konfigurazionalitateaz", *Patxi Altunari Omenaldia*, EUTG, (Pérez, Urkizu eds.).
- SALABURU, P. (ed.) (1989) *Sinfaxi teoria eta euskara*, EHU: Bilbo.
- SARASOLA, I. (1977) "Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes", *ASJU XI*.
- SCHUCHARDT, Hugo (1893) *Baskische Studien I* (Traducción española: *Sobre la formación de las flexiones de relación del verbo vasco*, Boletín de la R.S. Vascongada de Amigos del País, año XXVIII, San Sebastián.
- STEMPF, V. (1890), *La langue basque, possède-t-elle, oui ou non, un nerbe transitif?* Bordeaux.
- TOVAR, A. (1954), *La lengua vasca*. Biblioteca Vasc. de los Amigos del País. San Sebastián.
- TRASK, R. (1982) *Synchronic and Diachronic Studies in the Grammar of Basque*. The School of Oriental and African Studies, University of London. Argitaratu gabeko doktorego tesis.
- UHLENBECK, C.C. (1948) "La langue basque et la linguistique generale", *Lingua* I: 59-76.
- URIAGEREKA (1988) *On Government*, MIT, Argitaratu gabeko tesia.
- URIAGEREKA (1989) "On the Status of the Binding Theory", Salaburu (ed.) 1989.
- VAN VALIN R.D. (1977) "Ergativity and the Universality of Subjects", *Papers from the Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society* 13: 689-705.
- WILBUR, T.H. (1979a) "The Ergative, Absolute, and Dative in Basque", *FLV* 31: 5-18.
- WILBUR, T.H. (1979b) *Prolegomena to a Grammar of Basque*, John Benjamins B.V. (Amsterdam).
- VINSON, J. (1921) *La langue Basque. Son état actuel. Son evolution Son histoire*. Bayonne.